


PROGRAMAZIO LABURRA EGITEKO ORIENTABIDEAK

BIGARREN HEZKUNTZA NATUR ZIENTZIAK



Irudia: [LEGO Einstein](#), Flirck

**PILAR ETXEBARRIA
LEIOAKO BERRITZEGUNEA**



PROGRAMAZIOAREN EGITURAREN PROPOSAMENA:

0. IKASTETXEAREN DATUAK, KURTSOA, MATERIA, MAILA
1. ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
2. EDUKIEN DENBORALIZAZIOA EBALUAZIOALDI BAKOITZEAN
3. METODOLOGIA
4. BALIABIDEAK
5. EBALUAZIOA: TRESNAK, IRIZPIDEAK, KALIFIKAZIOA
6. BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

ORIENTABIDEAK

1. ATALA: ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA

1.1) Lehendabiziz, DBHri dagokiona, [Etapako Dekretuan dauden](#) helburu orokorrak irakurtzeko beharra dugu, ikusteko nola dauden egituratuta gaitasunak garatzeko. Gero, gure kurtsoara moldatzen ditugu. [Batxilergoan](#), analisia eta moldaketa errezagoa gertatzen da materia bakoitzak bere helburu propioak dituelako.

Helburuak era honetan idazten dira: **ZER + NOLA + ZERTARAKO**

Adibidea: DBHko 2. helburua

2. Problemak ebaztea eta ikerketa txikiak egitea,	ZER
bakarka nahiz taldean, zientzien prozedurekin koherentzia duten estrategiak erabiliz. Horretarako, estrategia hauek erabiliko dira, besteak beste: argibide-hipotesiak egitea, datuak lortzea eta datu horietatik emaitzak eta ondorioak ateratzea, iritziak eman ahal izateko.	NOLA
Iritzi hutsak frogatzea jakin batzuetan oinarritutako ebidentzietatik bereiziko dira horrela, testuinguruan jarrita lantzeko interes pertsonaleko edo sozialeko egoera errealek, eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateko.	ZERTARAKO

Helburu honetan ea gaitasun guztiak aurki ditzakegu. Argi eta garbi ikusten da jakintzagai honetan gai batzuetan (aproposak direnak) buruzko ikerketak edo egoera problematikoak garatu behar direla, ikerketak zientziaren prozedura nagusiak direlako (gaitasun zientifikoa) . Era berean, ikerketa baten bidez, gaitasun ugari garatzen dira: talde lana egiten da, datu idatzi bai zenbakidunekin lantzen da, iturri desberdinetatik hartzen dira, emaitzak komunikatzen dira...(informazioa tratamendurako gaitasuna, digitala, matematikakoa, hizkuntzakoa, ikasten ikastea). Zertarako honetan ere aipatzen da gaiak ikaslearen eguneroko testuinguru batean kokatu behar direla, esparru pertsonalean edota (gizarte eta hiritartasunarako gaitasuna) eta erabakiak hartzeko baliogarriak izan behar zaizkiola, (norberako autonomia lortzekoa).

HELBURU GUZTIEK EZ DITUZTE GAITASUN GUZTIAK ZERTAN GARATU BEHAR BAINA HELBURU GUZTIEN ARTEAN GAITASUN GEHIENAK LANDU BEHAR DIRA

1.2) Gure programazioan dagoen helburua abiapuntua hartzen eta birformulatzen dugu:

Eginda ditugun programazioetatik abiatuz, kurtso bakoitzeko helburuak adierazteko, ezinbestekoa da curriculum arakatzea.

Adibidea: DBHko 1. maila, helburu bat era honetan idazten badugu: “ **Materiaren egoerak identifikatzea eta bakoitzaren ezaugarriak deskribatzea**”

Helburu honetan bakarrik **ZER** agertzen da, ez daude jarrita zelan egingo dugun eta zertarako

a) Helburuen erredakzio formala lortzeko (**ZER + NOLA + ZERTARAKO**) Dekretuan dauden gure helburuari buruzko informazioa bilatzen dugu:

lehenengoz edukin-multzoetan.

Helburuari dagokion edukin-multzoa: 2. materia eta haren propietateak

Gero ebaluazio- irizpideetan eta adierazleetan

Multzo honi dagozkion ebaluazio-irizpidea 3a da. Irizpideetan **ZER + NOLA** bilatzen dugu:

<i>“ Inguruko materialen propietateak (masa, bolumena eta materialen egoerak) deskribatzea,...</i>	ZER
<i>...materiaren ezaugarriei eta propietateei buruzko esperimendu errazak eginez”.</i>	NOLA

Irizpideak etapako 2. helburuekin zerikusi handia du, gaia esperimentazioaren bidez lan egitea proposatzen duelako. Helburuan **ZERTARAKO** aurkitzeko pista dugu: *Iritzi hutsak frogatzen jakin batzuetan oinarritutako ebidentzietatik bereiziko dira horrela, testuinguruan jarrita lantzeko interes pertsonaleko edo sozialeko egoera errealak, eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateko*

b) Dena lotzen badugu, gure helburu orokorra berridazten da, aldi berean, aberaztuta geratuz

<i>“ Inguruko materialen egoerak identifikatzea eta ezaugarriak deskribatzea...</i>	ZER
<i>...esperimendu (edo ikerketa) errazak taldean eginez eta zientzien prozedurekin koherentzia duten estrategiak erabiliz,...</i>	NOLA
<i>...eguneroko bizitzan gertatzen diren halako fenomenoak interpretatzeko”</i>	ZERTARAKO

C) Helburu guztiak birmoldatu eta gero, etapako helburuei beste begirada bat ematea komeni zaigu lau kurtsoren artean guztiak beteta daudela ikusteko

2. ATALA: IKAS UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

Hiruhila bakoitzean ikusiko diren unitateak, saioen kopurua markatuz. Dekretuan dauden edukin-multzoen sakontasuna, ordena curriculumean eta denboralizazioa zehaztatzea Mintegi edo Departamenduak erabakitzen du.

Argitaletxeek, beren testu liburuetan, proposamen didaktiko bat egiten digu eta, lehendabiziz, **testu liburua Dekretuko edukinekin bat dagoen aztertzea** komeni zaigu.

3. ATALA: METODOLOGIA

Atal honetan deskribatzen da, orokorrean, ikasturtean zehar gelako jarduerak planteatzeko modu orokorra. Jarduerak aurrera eramateko erabiliko ditugun estrategia metodologikoak eta taldekatzeak.

Gaitasunak ondo garatzeko estrategia metodologiko nagusiak honako hauek dira:

ELKARLANA. Taldean lan eginez, hainbat gaitasun lantzen dituzte ikasleek

- Hizkuntza gaitasuna: haien artean eztabaidatu, elkarriketatu, argudiatu...behar dutelako
- Autonomia pertsonala: talde batean guztien helburu lortzeko nor bere ardura hartu behar duelako, taldean sor daitezkeen gatazkak komunean irtenbideratzen direlako...
- Informazioaren tratamendua: taldean lan egiteko informazioa antolatzeko teknika eta dinamika ugari erabiltzen direlako
- Ikaste ikastea: taldeetan batak besteari laguntza ematen diolako eta hau da ikasitakoa finkatzeko modurik onena, berdinen arteko irakaskuntza

IKASKUNTZAREN AUTOERREGULAZIOA. Metodoa da ebaluazioan zehar, hainbat teknika eta tresna erabiltzea ikasle bakoitzak momentu guztietan bere ikaskuntzaren maila jabetzeko: eguneroko pertsonala, autoebaluazioak, beste kidearekiko ebaluazioak, berdinen arteko tutoretza, ikasleen arteko laguntza taldeak, ikas-kontratuak...Honen bidez ere gaitasun asko lortzen dira, batez ere autonomia pertsonala eta ikasten ikastea.

Programazioaren antolakuntza **ATAZA EDO PROIEKTUEN BIDEZ.** Atazak eta proiektuak egiten, normalean klaseetan gauzatzen ditugun jarduerak sentzua hartzen dute, ikasleek ekoizpen bat egiteko bideratuta daudelako. Gaitasun zientifikoa eta informazioaren tratamendua bermatuta geratzen dira estrategia honekin. Informazioa ateratzeko eta ekoizteko baliabide digitalak erabiltzen badira, gaitasun digitala ere lantzen dugu.

Ataza: jarduera batzuen bidez informazioa hartu eta berrantolatzen da, informazioa eskuratzen da zeozer zehatza egiteko. "Zeozter" hori ikasleengan esanguratsua bada, hobe (bere interesei erantzuten dio, motibagarria da, adimen desberdinak lantzeko prestatuta dago...) eta gizartearekiko lotura badu, askoz hobeto. Ataza batzuek ikas sekuentzia bat osotzen dute. Esate baterako, ikasleek taldeka zelularen egiturari buruzko informazioa eskuratzen dute (testu liburutik, Internetetik...) bakoitzak zelulako plastilinazko ereduak egiteko. Gero, klase osoan erakusketa txiki bat egiten da eta ikasleek lan onena bozketa aukeratzen dute.

Proiektua: proiektuetan ere informazioa erabiltzen da ekoizpen bat egiteko, baina informazioaren tratamendu osoa egiten dute ikasleek: bilatu, sailkatu, ordenatu, interpretatu, ondorioak atera, eta komunikatzen dute. Antolamendua konplexuagoa da eta ikas sekuentzia bat edo batzuk lantzen dira proiektu baten bidez. Adibidez:

--Teknika "ikerketak taldea-investigation group". Erreakzio kimikoak ikasteko, erreakzio mota desberdinetan banatzen da gaia. Ikasleak taldeka antolatzen dira. Talde bakoitzak erreakzio mota bat aztertzen du eguneroko bizitzako materialekin, esperimenduak eginez. Egindako lanaren komunikazio zientifikoa egiten dute (hormairudiak, diapositibak, bideoak...) eta klasean talde bakoitzak besteei azaltzen diote.

--Teknika "puzlea-jisaw". Ekosistemak ikasteko, ikastetxetik hurbil dagoen ekosistema bat aukeratzen da (basoa, hondartza, lurzorua, hiria, instituto bera...). Ekosistemaren aldagai eta ezaugarri desberdinak aztertzeko lana taldeetan banatzen da. Talde bakoitzak lanaren atal batez arduratzen da (ezaugarri fisiko-kimikoak, izaki bizidunak...) eta landa lanaren bidez neurketak egiten dituzte, gero laborategian laginen aztertzeko. Gero taldeak berrantolatzen dira, talde berri batzuk sortzen. Talde berri hauetako ikasle-konposizioan aztertutako aldagai guztiak daude. Informazio osoarekin datuak interpretatzen eta sailkatzen dituzte eta azken ekoizpena egiten dute formatu zehatza batean. Azkenena ekoizpenen elkartrukea egiten da ondorio desberdinez eztabaidetzeko. Lana ere beste kurtsoei azaldu ahal zaio edo ikastetxeko pasilloan erakusketa montatzea

4.ATALA: BALIABIDEAK ETA TESTU LIBURUA

Erabiltzen dugun metodologiaren menpe daude, beraz, oso metodologia tradizionalen kokatzen bagara, testu liburuak, informazioa oso egituratuta duenez, paper garrantzitsu bat betetzen du. Baina aldi berean, lan intelektual gutxiago eskatzen duenez, gaitasunak garatzeko orduan, eskasa geratzen da. Beraz, nahiz eta testu liburua oinarri gisa izan, beste baliabideak erabiltzea ezinbestekoa da.

Argitaletxeek proposamen didaktiko bat egiten digu eta, lehendabiziz, gure proiektu didaktikoekin bat dagoen testu bat aukeratu behar dugu, egokia izan behar da.

Zientzietan, laborategia eta irteera didaktikoak ezinbestekoak dira gaitasun ZTO aurrera eramateko. Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta hizkuntzakoa lantzeko, ez da gomendagarria informazioaren iturri bakarria izatea, hots, testu liburua, ikasturtean zehar, hainbat iturri desberdinetan erabiltzea baizik, hala nola:

- Lan esperimentala eta landa-lana, laborategiko ikerketak, kanpoko irteerak, entpresa-bisitaldiak...
- Bildumak: landareak, mineralak...
- Hormairudiak eta panelak: zikloak, mapak...
- Egunkari-artikuluak, aldizkari zientifiko edo teknologikoaren artikuloak...
- Eguneroko bizitarako testuak edo irudiak : etiketak, foiletoak, argazki-bildumak, mediku-analisiak, fakturak...
- Eguneroko bizitzako objektuak, batez ere teknologian
- Ikus-entzunezko baliabideak: diapositibak, bideoak, telebistako dokumentalak, pelikulak...
- Pertsona batekin elkarrizketa: familia, auzokidea, beste kidea, beste irakaslea, aditu bat...
- Irakasleen egindako fitxak, praktikak, laburpenak
- Ikasleek garatutako ekoizpenak: maketak, proiektuak, hormairudiak...
- Gaur egun informazioaren iturririk nagusia Internet da, ez dugu erabili ahaztu behar. Sarean bidez, informazio idatziaz gain, multimedia ere lor dezakegu: mapak, irudiak, bideoak, soinuak, animazioak, simulazioak...

5. ATALA: EBALUAZIOA

Zer esanik ez, hau ere aldagai metodologikoa da. Gaitasunak garatzeko metodologiaren ebaluazioa prozesuak ebaluatzea da eta prozesuak ezin dira baloratu behin bukatutik, azken azterketa egiten, baizik eta, prozesuan zehar hainbat tresna desberdin erabiliz. Ikaskuntzaren autoerregulazioa jarraitzen badugu, ikaslek bera ikasitakoaz jabetzen joango da.

TRESNAK: buruz ikastea eskatzen ez duten frogak idatziak, ahozko frogak (ikasitako ondoriak, galdera "gakoak", egoera problematika baten ebazpena, eztabaidak...), ikasleen lanak eta ekoizpenak, portfolioak, gela barruko behaketa zuzena, koadernoak, ikasleen aurkezpenak. Autoerregulazioarako tresnak: KPSI, orientazio-baseak, ikas-egunerokoak, kontratu didaktikoak...

Baina benetan berria den curriculumean bi gauza dira:

- Aldi batetik, **"kontzeptu, prozedura eta baloreak"** edukien sailkapena desagertzen da, eta honekin batera, atal bakoitzaren kalifikatzeko ohiko ehunekoak

- Bestetik, **EBALUAZIO IRIZPIDEAK** dira. Bai ikasleek, bai beren familiek zehatz mehatz ezagutu behar dituzte zeintzuk diren eduki-multzo bakoitzari dagozkion gutxiengo ebaluazio-irizpideak kurtsoan. Horregatik, erabiliko ditugun tresnak ere irizpide hauen arabera proposak eta egokiak izan behar dira. **Dekretuan oso ondo adierazita daude**, gure lana kontextualizatzea besterik ez da.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: Buletinean ipintzen dugun **nota erakitzeak akordioak**. Hemen oreka bilatu behar da, prozesuan ebaluazio mota desberdinak egiten baditugu, ezin dugu frogak bakar bati pisu osoa eman.

Atal honetan ere ezohiko ebaluazioan erabiltzen ditugun irizpideak eta kalifikazio sistema zehaztzen dira.

6. ATALA: BERRESKURAPEN SISTEMA ETA HEZKUNTZA INDARTZEA

Berreskuratzeko sistema ebaluazioaren metodoarekin bat dago. Etengabeko ebaluazio batean, egokia izango litzateke prozesuan zehar ikasle bakoitzak zer berreskuratu behar duen zehaztzea, eta ez, normalean egiten den bezala, azterketa baten bidez ebaluazioaren edukin guztiak berriro baloratzea. Praktikotasunari begira, estrategia metodologikoa bat izan daiteke ikasleekin kontratu bat egitea. Kontratu batean, irakasleak, bere hutsune aztertu eta gero, edukiak berreskuratzeko modu bat proposatzen dio ikasleari eta berarekin prozedura adosten du (zein eduki, zerez bidez, entregatzeko

epeak) . Ikasleak konpromezua hartzen du eta bere familia informatuta dago, kontratuan ere parte hartzen dutelako.

Atal honetan ere pendienteen kudeaketaren modu jarri behar da.

Hezkuntza indartzeari dagokionez, horretarako erabiltzan ditugun estrategiak aipatzen dira. Zentsu honetan beti gomendagarriagoak dira praktika inklusibak, hau da, ohiko ikasgelaren barruan eta berdinen artekoak garatzen direnak.



ADIBIDEA

IKASTETXEAREN IZENAIkastetxea /BHI						2009-2010	
IRAKASGAIA							DATA	
MAILA	DBH 1	X	DBH 2		DBH 3		DBH 4	
							1. BATX.	
								2. BATX.

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA							
<p>1. Inguruko materialen egoerak identifikatzea eta ezaugarriak deskribatzea, esperimentu errazak taldean eginez eta zientzien prozedurekin koherentzia duten estrategiak erabiliz, eguneroko bizitzan gertatzen diren halako fenomenoak interpretatzeko</p> <p>2.....</p> <p>3.....</p>								
2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA							
	1. ebaluazioa			2. ebaluazioa			3. ebaluazioa	
12	Materia		10	Lurra unibersoan		15	Izaki bizidun motak eta sailkapena	
12	Geosfera		12	Atmosfera		15		
10	Giza gorputza		12	Hidrosfera			Biodibertsitatea	
3	METODOLOGIA							
<p>Proiektuen bidez lan egingo da. Proiektuetan elkarlanean arituko gara, gai bati buruz ikerketak egingo dira eta informazioa bilatu, sailkatu, berrantolatu eta komunikatu egingo dute ikasleek. Talde finakoak egingo dira eta, gaiaren arabera, taldeak berrantolatu daitezke. Informazioa baliabide desberdinetatik aterako da. Baliabide digitalak bai informazioa bilatzeko, bai ekoizpenak garatzeko erabiliko dira (2.0ko lanak) Proiektu guztietan izango ditugun ekoizpenak ikasgelako blogean jarriko dira gurasoei ikustarazteko. Gai guztietan jarduera osagaiak egingo dira, bai birpasatzeko edo sakontzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> ●Materia: esperimentuen bidez, inguruko materiaren egoerak aztertuko dituzte. ●Geosfera: gure herriko arroka eta mineralak izango dira aztergai irteera didaktiko baten bidez. ●Giza gorputza: ikasle bakoitzak bere gorputzaren funtzionamenduari buruzko hormairudi erraldoi bat egingo du. ●Lurra unibertsoan, atmosfera eta hidrosfera: Ikasleek estralutarren papera hartuz, gure planetaren azterketa egingo dute. WebQuest teknika erabiliko da. ●Izaki bizidunak: Lurzorua izango da edukin-multzoa lantzeko haria. Laginak aterako dira eta han bertan izaki desberdinetako azterketa eta sailkapena egingo da laborategian. Organismo zelulabakarren bidez, zelularen hurbilketa egingo da. ●Biodibertsitatea lantzeko, galzorian dauden Euskadiko izakin bizidunei buruzko ikerketa egingo da. <p>Ikerketa edo proiektu guztietan ikasleek bai informazio-txostenak, bai lanak ekoiztuko dituzte formatu desberdinetan (mapa, hormairudiak, diapositibak, erakusketa...) gaitasunaren garapena lortzeko . Beti egingo da Ikerketaren emaitzak komunikazio zientifiko modu bat.</p>								
4	BALIABIDEAK							
<p>Ondorengo baliabideak erabiliko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ●Testu liburua oinarritzko informazio iturritzat hartuko da ●Lan esperimentalak laborategian eta landa-lana ●Irakasleen egindako diapositibak, praktikak, laburpenak... ●Bildumak eta sailkatzeko gidak: lurzoruko organismoak, mineralak... ●Egunkari-artikuluak aktualitate-gaietan: biodibertsitatea Euskadin, kutsadura – arazoak, osasuna... ●Ikus-entzunezko baliabideak: diapositibak, bideoak, simulazioak, argazkiak...digital modukoak gehien bat ●Beste kurtsoko ikasleek garatutako ekoizpenak eredu gisa: maketak, proiektuak, hormairudiak... ●Klaseko bloga 								
TESTU LIBURUA:					ARGIALETXEA:			
5	EBALUAZIOA: TRESNAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK							

Tresnak: etengabeko ebaluazioa egingo da eta, proiektu edo ikerketaren arabera, tresna desberdinak erabiliko dira. Ikasleen lanak eta txostenak ebaluatzeko errubrikak erabiliko dira, irizpideka eta indikatzaile zehatzekin. Ebaluazioaren amaieran proga idatzia egingo da. Proga hauetan ikasitako bezalako egoera problematika baten ebazpena planteatuko da edo ikasitakoari buruzko argudiozko galdera gakoak egingo dira. Era berean, autoerregulazio teknikak erabiliko dira: hasierako ebaluazioa, helburuen jabetzea, orientazio-baseak, egunerokoak, autoebaluazioak eta elkarren arteko ebaluazioak garatuko dira.

Oinarritzko ebaluazio irizpideak:

- Ikerketa zientifikoen lan egiteko prozedurak, antolakuntzarako arauak , komunikazio zientifikoa eta zientziarekiko jarrerak ezagutzea eta jabetzea klaseko proiektuak eginez.
- Inguruko materialen propietateak (masa, bolumena eta materialen egoerak) deskribatzea, materiaren ezaugarriak eta propietateei buruzko esperimendu errazak eginez.
- Inguruak dauden arroka eta mineral ugariak ezagutzea , beste materialeekin desberdintzea eta erabilera arruntenak ezagutzea, beren propietateak in situ eta laborategian aztertuz eta gako errazak erabiliz
- Materialen propietateak eta materialen erabilera erlacionatzea, nahasketak banatzeko teknika errazak aplikatuz
- Osasunarekin lotutako gizakien bizi-funtzio nagusiak ezagutzea, ohitura, elikaduraren, harremanen eta ugalketaren oinarritzko alderdiak deskribatuz
- Gure planetaren kokapena Unibertsoan eta eguzki sisteman ezagutzea eta interpretatzea, maketa errazak eta zeru-irudikapenak eskalan eginez, teoria astronomikoetan izan duten artikulazioa eta gizartean izan duten eragina azpimarratuz.
- Atmosfera eta aireak zer propietate dituen jakitea, izaki bizidunak babestea garrantzitsua dela balioestea, eta gizakiok atmosferan dugun eragina kontuan hartzea, honi buruzko informazio- ikerketa eta esperimenduak burutuz.
- Uraren propietateen ezaugarriak, urak naturan duen zikloa, urak izaki bizidunengan duen garrantzia eta gizakiok gure jardueretan ura erabiliz sortzen dituen kontsumoaren ondorioak ezagutzea, deskribatzea eta kontuan hartzea, gaiari buruzko informazio- ikerketa eta esperimenduak burutuz.
- Izaki bizidunen aniztasuna eta sailkapena ezagutzea, zelula oinarritzko irizpidea kontuan harturik , inguruneko ekosistemako organismoen azterketaren bidez, izaki bizidunak eta zelulabakarrak aztertuz.
- Biodibersitatearen mantenduaren garrantziaz jabetzea, galzorian dauden Euskadiko izaki bizidunen azterketaren bidez.

Kalifikazio irizideak: Nota hurrengo proportzioetan banatuko da:

- Ebaluazio- aukeratutako ataza aproposak: % 40
- Ikaslearen ekoizpena proiektuetan: % 40
- Azken frogak: % 20

Ez ohiko ebaluazioa: Dekretuak markatzen duen bezala, ikasturtearen amaieran proga bat egingo da. Proga honen egiturak ebaluazioetan erabilitako formatoa bezalakoa izango du eta ebaluazio-irizpide minimoak erreferentzia izanda, kalifikatuko da.

6

BERRESKURAPEN SISTEMA ETA INDARTZEA

Ebaluazioa ez gainduta izango duten ikasleekiko kontratua egingo da. Irakasleak, bere irizpideen arabera eta ikaslearen ezagupena kontuan harturik, berreskuratzeko sistema batzuk proposatuko dizkio. Ikasle , irakasle eta familien artean berreskuratzeko sistema aproposa aukeratuko da.

Hezkuntza indartzea ikasturtean zehar garatuko da edukinen etengabeko berreskurapena eta kideen arteko laguntza bultzatzen

Aurreko kurtsoko materien berreskurapena hurrengoan egingo da, ikasturtean zehar lan desberdinak proposatzen.